



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/05/30

Bizkaiko Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe politika publiko guztietan Adinbakoaren Interes Gorenaren Printzipioa sartu daiala eskatzea Foru Erakundeari

Gernikako Batzarretxean gaur egin dan osoko bigarren saioan, Batzar Nagusiek aho batez onetsi dabe bere politika publiko guztietan Adinbakoaren Interes Gorenaren Printzipioa sartu daiala eskatzea Foru Erakundeari. Aurretik, Bizkaiko Batzar Nagusiek kontroleko osoko saioa egin dabe, eta bertan bost itaun eta ahozko hamar erantzun-eske landu ditue. Hori amaitzean, lau puntu izan dituan osoko bigarren saioa egin da.

Aho batez onetsi dan Arauz Besteko Proposamenean, proposamena aurkeztu dauen Podemos Bizkaia taldeak “Adinbakoaren Interes Gorenaren printzipioa aplikau behar dala” esan dau, “umeen eta nerabeen eskubide subjektiboen eraginkortasuna babesteko eta bermatzeko”. Podemos Bizkaia taldeko batzarkidearen eretxiz, proposamena, “gero eta zahartuago dagon eta helduengan zentretan dan sistema daukan gizartean” umeek eta nerabeek bizi daben “zaurgarritasun egoera bereziaren” ondorioz bultzatu da. Talde guztiak ekimenaren oinarriagaz bat etorri diran arren, ez da eztabaidarik faltau; dana dala, talde guztiak bat etorri dira hobekuntzarako tartea dagola esatean, eta pozik agertu dira, batzarkide sozialistaren berbetan “hain sensiblea eta garrantzitsua dan” gaian adostasuna lortu dabelako.

Bigarren osokoan Bilboko udalerrriaren armarria eta bandera be onartu dira. Banderaren kasuan abstenidutea erabagi dauen EH Bildu taldeak izan ezik, talde guztiek enblema biak berretsi ditue. Eguneko gai zerrendea bigarren Arauz Besteko Proposamena, Talde Mistoak aurkeztutakoa eta EH Bilduren zuzenketa-eskea jaso dauena, baztertuz bukatu da. Proposamen horretan Ondasun Higiezinaren Zergari buruzko Foru Araua aldatzea eskatzen zan, Udalek familia ugarietara erabagi daitekezan bestelako familia unidade batzuei OHZan hobariak ezarteko eukien ahalmena berreskuratzeko. Ekimenak, beste zuzenketa-eske bat aurkeztu dauen Podemos Bizkaia, EH Bilduren eta Talde Popularraren aldeko botoak jaso ditu; dana dala, Foru Gobernua eusten daben taldeek kontrako botoa emon dabenez, azkenean ez da onartu.

Aurretik, Batzar Nagusiek ohiko Kontroleko Osokoa egin dabe. Bost itaunetako bat Imanol Pradales Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako diputatuari egon da zuzenduta. Podemos Bizkaia, Foru Erakundeak sinatzen dituan hitzarmenetan eta akordioetan gizarte arloko eta giza eskubideen aldeko klausulak sartzeko bere Saitetik martxan jarriko diran neurriak zehazteko eskatu deutso diputatuari. Diputatuaren berbetan, daborduko apliketan diran gizarte arloko eta giza eskubideen aldeko klausulak aitatzeaz aparte, ETEek parte hartzen daben nazinoartekotze prozesuaren barruan, enpresa horreek joango diran herrialdeen kultura eta ezaugarri zehatzak ezagutzeko lana be egiten dala adierazo dau.

Horrez gain, ahozko hiru erantzun-eskeri erantzun deutse –EH Bilduren bi eta Talde Popularraren beste bat– errugbiko finaleran hotelek ezarritako prezioen eta Peñaskaleko masaderaren gainean eta Lamiakoko ibai-azpikoaren inguruan Aldundiak daukan erantzukizunari buruzkoei, hain zuzen be. Lehenengo gaiari jagokonez, EH Bilduko batzarkideak aurreikuspenak “puztutea” eta diskurtso “auto-adeitsua” egitea aurpegiratu deutso Aldundiari; Pradalesek 30 milioi eurotan balorau dau ekitaldiaren eragina, eta hotel eta ostalaritza sektoreei bere ardurea helduarazo deusela esan dau, “epe ertainean eta luzean pentsauta” behar egin behar dala gogoratuazoz. Peñaskaleko masaderari jagokonez, daborduko ez dagola operatibo eta eskumena Bilboko Udalarena dala esan dau. Bukatzeko, Lamiakoko ibai-azpikoa gauzatzeko epeei jagokonez, orain egun batzuk emondako datuakaz jarraituta, lanak 2027an bukatzea aurreikusten dala berretsi dau.

GARRAIO ETA AZPIEGITURA ARLOETAKO LEHENTASUNAK

Gaurko saioan, Unai Rementeria Ahaldun Nagusiak Podemos Bizkaiak egindako itaun bati erantzun deutso, Foru Gobernuak garraioaren eta azpiegituren arloan dituan lehentasunen gainekoari. Podemos taldeko batzarkideak, esku-hartzeko bere txandan, Lurralde Sektore Planaren (LSP-PTS) gainean dagon adostasun faltaz eta gauzatu behar diran “mega-azpiegitura biez” aparte, beste azpiegitura batzuek, Metroaren 4. eta 5. lineek edo Errekaldeko saihebidetarako, adibidez, daukien bultzada faltea kritikatu dau. Rementeriak, bere aldetik Aldundiak egindako beharra defenditu dau, Supersur izeneko handitzeari eta Lamiakoko ibai-azpikoaren eraikuntzari jagokonez, “orain edo ez dakigu noiz” egin behar dirala esanez. Horrez gain, aurrera eroan behar diran ekintzen artean, “Metro sarea Galdakaogaz eta Usansoloko ospitaleagaz lotzea eta modu eraginkorrean egitea” dagola esan dau, “une honetan dagozan azpiegiturak be baliauta”, bidegorri sareari “bultzadea emoteaz” aparte.

UNZUETA DIPUTATUARI ZUZENDUTAKO ITAUNAK ETA AHOZKO ERANTZUN-ESKEAK

Ingurumeneko eta Baliabide Naturaleko diputatua izan da gaur goizean estradura gehien igon dan Aldundiko arduraduna. Bost bider guztira: EH Bilduren itaun bi, Gaztelugatxeko jarduera proposamenaren eta Ur Partzuergoen kudeaketaren gainekoak; eta Talde Popularrak, EH Bilduk eta Podemos Bizkaiak, hurrenez hurren, Bizkaiko hondartzetako lagundutako bainuari, Garbikerregaz eta TMB Arraizegaz instalazinoen garbiketa eta mantentze lanei jagokonez eta Gipuzkoako hondakinak Bizkaira ekarteari buruzko ahozko hiru erantzun-eske egin ditue. Gaztelugatxeri jagokonez, Aldundiko arduradunak Deloitte kontsultoretza etxeak egindako Plan Zuzendaria aitatu dau. Plan horretan, helburu nagusi moduan ingurumena babestea eta enplegua sortzea daukien 85 jarduketa proposamen jasoten dira. Inplikautako eragile guztiek euren proposamenak aurkeztu ahal izango ditue bagilaren 1era arte.

Ur Partzuergoari jagokonez, EH Bilduko batzarkideak Busturialdeko Ur Partzuergoa “ito izana” aurpegiratu deutso Aldundiari, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari lehentasuna emonez, ekonomiaren ikuspegitik. Diputatuaren berbetan, batzarkidearen esku-hartzea “zientzia fikzinozkoa” izan da, eta Aldundiak “Bizkaia osorako Ur Partzuergo bakarria egotearen aldeko apustua” egiten dauela adierazo dau, “udalerrri guztiek uraren prezio eta kalidade bera izan daien”. Une honetan, adierazo dauenez, 80 udalerrri dagoz Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren barruan.

Beste erantzun-eske bati erantzunez, Unzuetak esan dau une honetan 7 dirala lagundutako bainurako programan parte hartzen daben hondartzak; Garbikerren eta ABEEaren artean garbiketari jagokonez dagon kontratua betetearen gainean, 2014tik, kanpoko prebentzino zerbitzu bat lantegiko higie baldintzak aztertzeaz arduratzen dala azaldu dau; bukatzeko, Gipuzkoako hondakinen tratametuari jagokonez, Zabalgari “hipotesi bat” izan daitekela esan dau.

BILBAO AIR, 3. LINEA ETA BIZKAIKO MOBİKORTASUNAREN AGINTARITZA

Garraio, Mobikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako diputatuak, bere aldetik, Bilbao Airren jarduerari buruzko itaun bati, eta Metroaren 3. lineak aireportuagaz daukan komunikazioari eta Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzaren lehenengo urteari buruzko ahozko erantzun-eske biri erantzun deutse. Bilbao Airri jagokonez, horren titulartasuna Bilboko Merkataritza Ganberarena dala esan dau. Dana dala, gauzatutako hainbat ekintza zehaztu ditu, Bartzelonako World Routes Azokan parte hartu izana edo aire eremuko eragileakaz izandako alkarrizketak, besteak beste. Bilboren eta Loiuko aireportuaren arteko 3. linea bidezko loturari jagokonez, “ez dala preminazkoa” esan dau, eta Talde Popularreko ordezkaria kritikau dau, trenbideko konexinoa behin eta barrero aitatzearren, aurrekontuen partida batean, hiria aireportuagaz tranbiaren bitartez lotzeko zuzenketa-eske bat aurkeztu eta gero. Bukatzeko, Bizkaiko Mobikortasunaren Agintaritzaren lehenengo urteko jarduereta holan definidu dau: “Bizkaiko garraio publikoaren ardura eta erronka nagusietara zuzendutako beharra, Eusko Jaurlaritzagaz, Foru Aldundiagaz, Bilboko Udalagaz eta BGP-CTBagaz koordinauta”.

EUSKALDUNAKO DIKEA ETA SARNA AGERRALDIA

Osoko saioa, Lorea Bilbao Euskera eta Kulturako diputatuari eta Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako diputatuari zuzendutako ahozko galdera bigaz osatu da; biak be Podemos Bizkaiak egin ditu. Lehenengoan, talde horrek, Euskaldunako dike sikuetan egiten ari diran beharretarako baimenaren ganeko interesa adierazo dau. Diputatuak, Bilboko Udalaren eskumena dala erantzun deutso. Bigarrena, Barakaldoko Sanitasen egoitzan izandako sarna agerraldiari buruzkoa izan da. Sánchez Roblesek “atzera egin dauela eta kontrolauta dagola” esan dau, eta gaixotasuna, kutsagarria zan arren, ez zala larria.

30/05/18

Las Juntas Generales de Bizkaia aprueban unánimemente instar al ente foral a que incorpore el Principio de Interés Superior del menor en todas las políticas públicas

En la segunda sesión plenaria celebrada hoy en la Casa de Juntas de Gernika, las Juntas Generales han aprobado unánimemente instar al ente foral a que incorpore el Principio del Interés Superior del menor en todas sus políticas públicas. La institución parlamentaria ha celebrado en primer lugar un Pleno de Control que ha constado de cinco interpelaciones y diez preguntas orales y al finalizar éste, se ha dado paso a una segunda sesión plenaria en la que se han debatido cuatro cuestiones.

En la Proposición No de Norma aprobada por unanimidad el grupo precursor, Podemos Bizkaia, manifiesta la necesidad de “aplicar el Principio de Interés Superior del menor como un mecanismo para proteger y garantizar la efectividad de los derechos subjetivos de la infancia y adolescencia”. A juicio de la juntera de Podemos Bizkaia, el impulso de propuesta se debe a “la situación de especial vulnerabilidad” en la que se encuentran las niñas, niños y adolescentes en “una sociedad cada vez más envejecida y con un sistema de valores adultocéntricos”. A pesar de que todos los grupos han compartido el fondo de la iniciativa, ésta no ha estado exenta de debate; no obstante todas las formaciones han coincidido en que hay margen de mejora y se han felicitado por alcanzar el consenso en un asunto “tan sensible e importante”, tal y como lo ha definido el apoderado socialista.

Durante esta segunda sesión plenaria también se ha llevado a cabo la aprobación del escudo y la bandera municipal de Bilbao. A excepción de EH Bildu, quien ha optado por la abstención en relación a la bandera, todos los grupos han ratificado ambos emblemas. El orden del día ha finalizado con el rechazo de una segunda Proposición No de Norma de Grupo Mixto, enmendada por EH Bildu, que solicitaba reformar la Norma Foral relativa al Impuesto sobre Bienes Inmuebles, a fin de recuperar la bonificación potestativa del IBI por los ayuntamientos a las familias numerosas y otras unidades familiares que así se establezca. Esta iniciativa únicamente ha contado con el apoyo de Podemos Bizkaia, quien también había presentado una enmienda, EH Bildu y Grupo Popular; no obstante al ser rechazada por los grupos que sustentan al Gobierno Foral, ha sido finalmente desestimada.

Previamente las Juntas Generales han celebrado su habitual Pleno de Control. Una de las cinco interpelaciones ha estado dirigida al diputado de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales. Podemos Bizkaia ha pedido al responsable foral que detallara las medidas que se van a implementar desde su Departamento para incorporar cláusulas sociales y de respeto a los derechos humanos en los convenios y acuerdos que firma el ente foral. Además de hacer referencia a aplicación de cláusulas sociales y medioambientales, que según el responsable foral se está llevando a cabo, también ha manifestado que dentro del proceso de internacionalización, en el que las Pymes participan, está la labor de conocer la cultura y las características concretas de los países a los que se quieren dirigir.

Asimismo, ha contestado a tres preguntas orales – dos de EH Bildu y una de Grupo Popular- sobre la responsabilidad de la Diputación ante la subida de precios hoteleros en la final de rugby, la planta de amasado del Peñascal, y el subfluvial de Lamiako. Respecto a la primera cuestión el apoderado de EH Bildu ha acusado a la Diputación de “inflar” las previsiones y de emitir un discurso “autocomplaciente”; Pradales ha cifrado en 30 millones el impacto del evento y ha manifestado que ha expuesto al sector hotelero y hostelero su preocupación y la necesidad de trabajar “pensando a medio y largo plazo”. En cuanto a la planta de Peñascal ha explicado que ésta no se encuentra activa y que su competencia pertenece al Ayuntamiento de Bilbao. Por último, en lo que a los plazos de ejecución del subfluvial de Lamiako se refiere, siguiendo con los datos ofrecidos hace unos días, ha reiterado que está previsto que las obras finalicen en 2027.

PRIORIDADES EN TRANSPORTE E INFRAESTRUCTURAS

En la sesión de hoy el Diputado General, Unai Rementeria, ha respondido a una interpelación de Podemos Bizkaia sobre las prioridades que maneja la institución foral en torno al transporte e infraestructuras en Bizkaia. La apoderada de Podemos, en su turno de intervención, ha criticado no solo la falta de consenso en relación al Plan Territorial Sectorial (PTS) y a las “dos megainfraestructuras” que se van a llevar a cabo, sino también la falta de impulso de infraestructuras como las líneas 4 y 5 del Metro o la variante de Rekalde. Por su parte Rementeria ha defendido la labor de la Diputación respecto a la ampliación de la Supersur y la construcción del subfluvial de Lamiako asegurando que “era ahora o no sabemos cuándo”. Asimismo ha asegurado que entre las acciones que se van a llevar a cabo está la de “unir la red de Metro con Galdakao y el hospital de Usansolo y hacerlo de forma eficiente, aprovechando también las infraestructuras que hay”, además de “dar un impulso” a la red de bidegorris

INTERPELACIONES Y PREGUNTAS ORALES A LA DIPUTADA UNZUETA

La diputada de Sostenibilidad y Medio Natural ha sido la responsable foral que más veces se ha subido al estrado esta mañana. En total han sido cinco: dos interpelaciones de EH Bildu sobre la propuesta de actividad de Gaztelugatxe y la gestión de Consorcios de Aguas, y tres preguntas orales de Grupo Popular, Podemos Bizkaia y EH Bildu acerca del programa de baño asistido en las playas de Bizkaia, el cumplimiento de contrato de Garbiker y TMB Arraiz en relación a la limpieza de la planta, y el traslado de residuos de Gipuzkoa a Bizkaia. Respecto a Gaztelugatxe, la responsable se ha referido al Plan Director que ha elaborado la consultora Deloitte y que incluye 85 propuestas de actuación que tienen como objetivo la protección del medioambiente y la generación de empleo. Todos los agentes implicados podrán presentar sus propuestas hasta el 1 de junio.

En lo que al Consorcio de Aguas se refiere, el apoderado de EH Bildu ha acusado a la Diputación de “ahogar” al Consorcio de Aguas de Busturialdea priorizando económicamente el de Bilbao Bizkaia. La diputada, que ha calificado su intervención como “ciencia ficción”, ha manifestado que la diputación apuesta por “un único Consorcio de Agua para todo Bizkaia para que todos los municipios cuenten con un mismo precio y calidad del agua”. Actualmente, ha asegurado que 80 municipios se encuentran integrados en el Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia.

En contestación a las una de las preguntas orales, Unzueta ha manifestado que actualmente son 7 las playas integradas en el Programa de baño asistido; respecto al cumplimiento del contrato entre Garbike y la UTE relativo a la limpieza, ha explicado que desde 2014 un servicio de prevención externo se encarga de supervisar las condiciones en materia de higiene de la planta; por último, en cuanto al tratamiento de los residuos de Gipuzkoa ha declarado que Zabalgardi se postula como “una hipótesis”.

BILBAO AIR, LÍNEA 3 Y AUTORIDAD DE LA MOVILIDAD EN BIZKAIA

El diputado de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, por su parte, ha respondido a una interpelación sobre la actividad de Bilbao Air, y dos preguntas orales sobre la comunicación de la Línea 3 de Metro con el aeropuerto y el primer año de la Autoridad de la Movilidad de Bizkaia. Respecto a Bilbao Air, ha aclarado que su titularidad recae en la Cámara de Comercio de Bilbao, sin embargo ha detallado algunas de las acciones llevadas a cabo, tales como la participación en la Feria World Routes en Barcelona o las entrevistas realizadas con agentes del ámbito aéreo. En lo que a la conexión de Bilbao con el Aeropuerto de Loiu se refiere mediante la Línea 3, ha reiterado en que ésta “no es acuciante”, y ha criticado al representante del Grupo Popular por insistir en la conexión ferroviaria habiendo dispuesto una partida presupuestaria con una enmienda para conectar la villa con la terminal mediante el tranvía. Por último ha resumido la actividad este año de la Autoridad de Movilidad de Bizkaia como “la dedicación a las principales preocupaciones y desafíos del transporte público de Bizkaia de manera coordinada entre el Gobierno Vasco, la Diputación Foral, el Ayuntamiento de Bilbao y el CTB”.

DIQUE DE EUSKALDUNA Y BROTE DE SARNA

La sesión plenaria se ha completado con dos preguntas orales dirigidas a la diputada de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, y la diputada de Acción Social, Isabel Sánchez Robles; ambas preguntas provenían de Podemos Bizkaia. En la primera Podemos Bizkaia se ha interesado por la autorización de las obras que se están llevando en los diques secos del Euskalduna, a lo que la diputada ha respondido que ésta se trata de competencia del Ayuntamiento de Bilbao; la segunda hacía referencia al brote de sarna detectado en la residencia Sanitas de Barakaldo. La diputada Sánchez Robles ha asegurado que ésta “ha remitido y está controlada” y que la propia enfermedad, aunque contagiosa, no era grave.